

» TELEGRAMA

Mikel Uraken bakarlariak Berrizko kultur etxean kontzertua eskainiko du maiatzaren 20an 22:00etatik aurrera. Iazko *Neguaeren ostein* diskoko kantak entzuteko aukera paregabea **STOP Cesar Rendueles** soziologo eta idazleak bere azken liburua, **Capitalismo canalla** izango du hizpide Donostian: Garoa Kultur Lab, maiatzak 19, 19:00etatik aurrera **STOP Elepika festibala** ospatzen ari dira maiatzaren 13tik Errobiko mediateketan. **Asisko Urmenetak** hitzaldia emango du jaialdiaren barruan komikiaren hizkeraz maiatzaren 21ean Kanbon. 11:00etan da hitzordua **STOP**

» DISKOA

Rock and rollaren sua



Joxi Ubeda



Ezkurrik onenak

ESKEAN KRISTÖ

Baga Biga, 2016

Rock and rolla, rock gogorra eta bluesa kemen eta grina handiz jorratzen ditu Arratia bailarako Eskean Kristö taldeak. Kantuak gitarra riffen bidez hasten dituzte, eta gitarren punteoak eta marrazkiak, leloak eta koruak arretaz lantzen dituzte; baita moldaketak ere, oro har, nahiz eta gitarretan oinarritutako doinu gordinak jo.

Pello Artabe (ahotsa), Alex Harillo (gitarra), Aritz Ontalvilla (gitarra), Peio Artetxe (baxua) eta Imanol Arrese (bateria) musikari trebeak dira, eta ekoizpen lan ona egin dute Igor Delgadoren gidaritzapean. Hitzak idazteko eta diseinua egiteko zereginak ere ganoraz burutu dituzte.

Indar handia transmititzen duten kantuak grabatu dituzte, ozen entzuteko modukoak. Grabazio saioetan parte hartu duten gainerako musikariak ere ederki aritu dira: Zalao Urain (ahotsa), Bart Farrell (ahotsa), Arra-

tiako Luis Iruarrizaga abesbatza, Jorge Trueba (pianoa), Vicent Zaragoza (perkusioak) eta Mayor Asier Garcia (perkusioak).

Taldearen aurreko bi lanen segida da disko berria –2013an beren kabuz kaleratu zuten sei kantuz osaturiko disko bat eta 2015ean *Azote kaldüz* diskoa Baga Biga zigiluarekin–, baina kantuetan ukitu eta xehetasun berriak edo desberdinak entzun daitezke, bai doinuetan bai hitzetan.

Taldeakideek 70eko eta 80ko hamarkadetako rock-and-rolla eta hard rocka eta 90eko hamarkadako eskandinaviar rocka atsegin dituztela suma daiteke kantuak entzunez gero. AC/DC, The Cult, Guns'n'Roses, Black Crowes, The Rolling Stones, Lynyrd Skynyrd, Jimi Hendrix, Santana, Niko Etxart...

Mikel Laboari eta Benito Lertxundiri egindako erreferentziak aurki daitezke kantuetan, Ramones taldearekin gogoratu dira *Ardigaldua* kantuan ("Gabak Gabak Hey zoratu gaitu, Gabba Gabba Hey animalia bihurtu") eta George Orwellen *Animal Farm* nobelaren zati bat aipatzen dute *Ezkurrik onenak* kantuan. Ahoan bilorik gabe mintzo dira kantuen bidez: "Txarririk txarrenak ezkurrik onenak jaten jozak" (*Ezkurrik onenak*), "Usteldu gaitu ustelkeriak" (*Radiobenta*), "Zu ez, nahi dut beste bat, otso basati lumatuago bat" (*Otso basati*), "Ez naiz beldur baino ez naiz fio, gezur usaia daukazulako" (*Gure bazterrak blues*). ■

Bizkaiko Arratia eskualdeko Eskean Kristö taldeko partaideak.

